


EUSKAL AEko ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI) 2013KO UZTAILA

Euskal AEko eraikuntza-kostuak % 0,4 garestitu ziren 2013ko uztailan, aurreko hilarekin alderatuta

lazko uztailarekin konparatuta, eraikuntza-kostuak % 0,3 garestitu dira

Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea % 0,4 handitu zen 2013ko uztailan, aurreko hilarekin alderatuta. Bestalde, hil horretako urtez urteko tasa % 0,3 handitu zen, EUSTATEk emandako datuen arabera.



Aurreko hilekoaren aldean, 2013ko uztailan ez da aldatu eskulanaren kostua (% 0,0), baina lehengaien kostuak % 0,5 garestitu dira.

Azpisektoreka, etxegintzak eta obra zibilak bilakabide antzekoa izan dute lehengaien kostuei dagokienez aurreko hilarekin alderatuta; izan ere, eraikuntzako lehengaiak % 0,5 garestitu dira eta obra zibilekoak, berriz, % 0,6. Bi azpisektore horien urtez urteko bilakaerari dagokionez, etxegintzako lehengaien kostuak % 0,2 igo dira eta % 0,6 jaitsi dira, aldiz, obra zibilekoak.

Sektorean kontsumitutako lehengaien prezioei dagokienez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handiena izan dutenak, besteak beste, industria ez-metalezkoa (% 3,9), makineria (% 2,0) eta industria kimikoa (% 0,7) dira. Bestalde, urtez urteko prezioan

(2013ko uztaileko prezioa 2012ko uztailekoaren aldean) jaitsiera handiena izan duten lehengaiak metalurgiaren sektorekoak (-% 5,9), energia elektrikoa eta gasa (-% 1,7) eta material elektronikoak (-% 1,4) izan dira.

1. TAULA. EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK. 2013KO UZTAILA (p)

	INDIZEA	ALDEAREN %		
		m / m-1	m / m-12	m / abendua
GUZTIRA	103,4	0,4	0,3	0,9
ERAIKINAK	103,1	0,4	0,4	0,9
OBRA ZIBILA	104,9	0,5	-0,3	1,0
LEHENGAI A	103,3	0,5	0,1	0,9
ERAIKINAK	103,0	0,5	0,2	0,9
OBRA ZIBILA	105,3	0,6	-0,6	0,9
LAN-ESKUA	103,6	0,0	1,0	1,0

Oinarria 2010=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko eraikuntzaren kostuen indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko datu-bankua